


auzoZ auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

altza

Maiatzeko lehen egunek antzerkia izango dute protagonista nagusia gure auzoan. Poltsiko Antzerkiaren V Jaialdia ospatuko da eta hiru antzezlan taularatuko dira inguruko tabernetan eta Kultur Etxean.

Ostegunean, hilak 2, Herrerako El Nido tabernan arratseko 20.00etatik aurrera Luis Boyano aztiak «Por narices» lana aurkeztuko du. Ostiralean berriz, hilak 3, Casares Kultur Etxean, 20.00etatik aurrera Luis Bruscak «Loco Brusca» pertsonaia ezagutaraziko digu. Eta jaialdia amaitzeko Larratxoko Bikutz tabernan 23.00etan Carmen San



Irteerarik gabeko erraldoia

Txirrita Bertsolaria kaleko 38. zenbakian bizi diren auzokideak haserre daude. Joan den martxoaren 26an sutea izan zen eraikin erraldoi honen 11. solairuan. Etxeak 16 solairu ditu eta goiko pisuetako bizilagunek beldur izugarria pasa omen zuten, etxeak ez baitauka larrialdietarako irteerarik. Hori dela eta, premiazkoa ikusten dute irteera hori egitea.

Esteban Gasteiztarraren «Frontera 908» kafe antzerkia taularatuko da.

Altza eta Larratxoko trafiko eta aparka-

mentu arazoak konpontzeko Leber enpresak egindako proposamenaren inguruan hitzaldia eskainiko du enpresako Josune Igoak. Maiatzaren 2an izango da Casares Kultur

Etxean 15.30etan emakumearen udal zerbitzuak eta Altzako emakumeen taldeak Kultur Etxearen laguntzarekin antolatuta.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA: 391267)

Maiatzak 1

IRUÑE Ara!

Cines Golem.
12etan.

ILAB
langile abertzaleen batzordeak